

**Bujero eta Txantxiku Txoko**

San Migel parrokixako kantonortetik hartutako bista honetan **Zazpibideta** edo **Sietevientos** aldia agerketan xaku: beti Oñatiko bihotza izan dan parajia, Argazkixa atara zanian (berrogei urte pasatxo izango dira), orain baiño trafiko gutxitxuago egongo zan, duda bari. Baiña beste gauza batzuk be aldatu dira inguru horretan. Ezkerretara agiri dan poste arteko etxepeia laister bota zan, gaur egunian dagueen Bizkaia edo —gurago badozue— BBVA bankuaren arkupeia jasoteko. Orduo ha Bujero eta xia zan, Eskumako aldi, berriz, Txakuetueneko tabernia eguen, oraintxe letxe, baiña harrezkero obra galanta egin zan han be.

Bujero: Oñatin instituziño bat izan zan Bujero, eliza aurrian eguen tabernia, jatetxia eta ostatua. Gerra aurretik Bergarajau-regitarak izan ziran jabiak eta negoziuaren arduradunak: **Fonda del Comercio** zan orduko ostatuaren izena. Gerra ondoren, Faustino Inza *Txaña*, eta Liborio Lizarralde *Uztarriña* be egin ziran Bujeroren kargu. Liborioren denboran **Bar Restaurante Izarra** eukan izentzat. Dana dala, mundu guztiak Bujero lez ezauketan eben.

Txantxiku Txoko: 1927xan Txakuetueneko taberna gaineko pisuan jarri eben bere egoitza ofiziala Oñatin sortu zan lehenengo soziedadiak. Hain zuzen be, aurtan bete dira 75 urte hori gertatu zala. Zazpibidetan iraun eben 1969ra arte alkarte horrek; orduan Aloña ziniaren azpiko **Zinepera** fan bihar izan eben urtebeterako-edo; handik Kale Zaharrera bueltatu zan, baiña orain-guan Perratzailleneko taberna gainera, hau da, sasue batian **Ona Hotela** egon zan lekura; han hogeai bat urtian egon eta gero, 1991n etorri ziran **Portu Kaleko** lokal barrira.

Txantxiku Txokoko bazkidiak beste sail batzuetan be jardun arren, zezen-kontuetan nabarmendu ziran lehenengo garaixan. Baiña gerrako gorabeheren ondoren, 1940xan **Oñate Sport** alkartekuekin batu ziranian, kirolari inportantzia haundixa emun otzain. Pelotiarri eta ziklismuari gehixen bat. Urte hareittan antolatu ziran bizikleta-karrerak famosuak bihurtu ziran: Arantzazurako igoerak, Bidaurretako *kilometro lanza*uk eta, batez be, naziñoarteko ziklo-krosak. Ospetsuena, jakiña, Txantxiku Txokoren bete-beteko parte-hartzeiarekin 1953an organizautako **Munduko Ziklo-Kros Txapelketia** izan zan. Handik aurrera deporterako dedikaziñua motelduaz fan zan soziedadian eta azkenian, 1960ko hamarkadan, Aloña Mendik bereganatu zittuan ardur horreik.

J. E.

Fotografixia Udal Artxibokua da eta argibidiak, berriz, Joxe Mari Urzelai eta Jesus Murgiondok emun doskue. Eskerrik asko danoiri.

**M. AGVIRREVRRETA
OKINDEGIA**

Berezano auzoa, 21
Tfnoak: 78 23 45 / 78 22 54
ONATI

BAR GALICIA

Atzeko Kalea, 22
Tel. 78 22 08

